

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2013ko apirilaren 3a. IX. urtea. 2.570. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Arkaitz Apeztegia Txiribituko sortzaileetakoa, Goretti Galarraga eta Jon Romero begiraleak eta Haizea Urrestarazu eta Idoia Odriozola laguntzaileak. I.T.

Hogei urteko ibilbidea osatu du Txiribituk gazteen aisia betez

Ibarrako aisialdi taldeak 20. urteurrena era berezian ospatzeko Txiribitu Astea antolatu du hilaren 8tik 13ra, ekitaldi ugarekin

Txiribitu Egunean egingo duten bazkaria nabarmendu dute antolatzaileek; «herrikoen artean giro polita sortzea» dute helburu 03

Jon Jaunarena leitzarrak Aitor Zubieta lagun duela txapel berria jantzi du

Binakako Bost t'erdiko Txapelketa berezia irabazi du Jaunarena pilotariak Xala eta Peñagarikanoren aurka; buruz burukoari heltzeko gogoz ari da entrenatzen 06

Irene Caminosek ondo hasi du Espainiako Biketrial Txapelketa

Hirugarren egin du tolosarrak Huelvan jokaturako lehen proban; beste bost geratzen dira eta guztietan parte hartzeko asmoa du 07

Jokin Alkizalete aizkolariak urrezko mailako kanporaketa gainditu du

Asteasuarrak Bilbon lortu du aurrera egiteko txartela, eta igandean berriro itzuliko da hurrengoan lehiatzeko; larunbatean beste kanporaketa bat izango da Zerainen 07

Alzheimerrari buruzko estatu politika eskatzeko proiektua babestu dute

Abaltzisketa, Asteasu, Aduna, Alkiza, Larraul, Belauntza, Zizurkil eta Tolosako udalek bat egin dute Guillermo Nagoreren ekimenarekin 02



'La memoria es el camino' proiektuak 7.050 kilometro egin ditu; Nagore, Jerusalemeko bidean. HITZA

Larraul, Abaltzisketa, Asteasu, Aduna, Zizurkil, Alkiza, Belauntza eta Tolosako udalek, babesa eman diote Alzheimerri buruzko estatu politika bat eskatzearen alde lanean ari den 'La memoria es el camino' proiektuari

Oroitzapenak gordetzeko bidean

Mikel Iraola

Ia 9.000 gipuzkoarren oroitzapenen lapurra da Alzheimerra. Ia beste 28.000 pertsona ari dira gaixoen zainketa lanetan. Eta gutxinaka zenbaki hauek handitzen joango direla dio AFAGI, Gipuzkoako Alzheimerdunen eta Bestelako Dementziadunen Senitartekoen eta Lagunen Elkarteak. Askoren oroitzapenak, beraz, arriskuan dira.

Arazo honen garrantziaz larrituta, *La memoria es el camino* izeneko proiektua jarri zuten martxan Guillermo Nagore kazetari nafarrak eta CEAFA, Alzheimerdunen eta Bestelako Dementziadunen Senitartekoen Elkartearen Espainiako Konfederazioak.

Gaixotasun honen inguruko estatu politika bat eskatzea helburu zuela, Finisterretik Jerusalemeko bidea egin zuten Nagorek oinez joan den urtean.

Estatu politikaren ezaugarriak
Gaixotasunak berak, eriei eta zaintzaileei eragiten dizkieten zailtasunak ekidin edo gutxitze-



Guillermo eta AFAGIko kideak, Jerusalemeko bidea zehazten zuen lehen seinalean. HITZA

ko plan integral bat egitean datza Alzheimerren inguruko estatu politikak.

Ikerketarako baliabideak handitu eta hobeto kudeatzea, zaintzaileak heztea, gaixoak zaintzeko leku bereziak sortzea... Nagoreren esanetan, puntu asko

jorratzen ditu planak, baina horiek euren proposamenak besterik ez dira. «Hau ondoren, CEAFA eta gobernua artean adostu beharreko kontua da».

Aurrekontuari begiratu gabe, osasun planetan «lehetasun» izan beharko lukeela dio Nagorek

gaixoez gain, zaintzaileei ere eragiten baitio Alzheimerrek: «Estatu Batuetan plana onartu zutenen Obamak, larrialdi nazionala zela esan zuen. Guretzat ere bada. Gaixo asko dago, eta diagnostikoa garazi eginda, eragina atzeratu daiteke. Baina batez ere zaintza-

leei eragiten die. Familiarteko askok lana utzi behar izaten dute 24 orduko zaintza eskatzen duelako, ez daude behar bezala prestatuta, eta psikologikoki oso gogorra da».

Babes bila

Finisterre eta Jerusalem banatzen dituen 7.000 kilometroko ibilbidea «presio soziala egin eta babesak bilatzeko» erabili zutela aitortu du Nagorek.

Azken hilabetean Tolosaldean aurkitu dute laguntza hori, izan ere, eskualdeko zortzi udalek, aho batez erabakita, bat egin dute euren eskakizunekin: Larraul, Abaltzisketa, Asteasu, Aduna, Zizurkil, Alkiza, Belauntza eta Tolosak, hain zuzen.

Dena den, lehen helmugara iritsi baziren ere, bidea ez da amaitu, eta lanean jarraitzeko asmoa dute: «Enpresa eta kirol mundura zabaldu nahi dugu; ikastaroak eta hitzaldiak eman; ikastetxeetan unitate didaktikoak sortu...». Hori guztia, oroitzapenak leku seguruan gordetzeko helburuarekin. Memoria baita bidea.

Guillermo Nagore • Kazetaria

«Zorteduna naiz esperientzia hau bizi izanagatik»

M. Iraola

Bederatzi hilabete t' erdi. 7050 kilometro. Hamabi herrialde. Oinez gehienak. Autobusez, trenaz edota bizikletaz beste asko. Eta bidean, milaka istorio harrigarri. Finisterretik Jerusalemeko kontakizun guztiak jasotzeko aukera izanagatik pribilegiatu sentitzen da Guillermo Nagore.

Nola definituko zenuke bidaia?

Zentzu guztietan, sekulako esperientzia izan da. Alderdi pertsonalean, egindako ibilbidea ederra

izan da. Alzheimerri dagokionez, jende askorekin hitz egin eta istorioak biltzea guztiz aberasgarria izan da. Profesionalki, kazetari naizen ikuspuntutik, berria izan da niretzat, batez ere, sare sozialak erabiltzea. Finean, bizitako esperientzia hau opari bat izan da niretzat, eta opari hori izanagatik pribilegiatu hutsa naiz.

Merituko pribilegiatua...

Ez dut gehiegizko apaltasunean erori nahi, baina benetako meritua ez dut nik; ni horrelako esperientzia eder batean murgilduta

nengoen bitartean, gaixoak zaintzen ibili direnek dute benetako meritua.

Zer nolako erantzuna jaso zenuen gertukoengandik zure asmoak azaldu ondoren?

Imajina dezakezu. Erotuta nengoela esaten zidaten. Baina ondoren laguntza besterik ez dut izan.

Prestakuntza berezirik izan al duzu?

Ez. Gustatuko litzaidake gehiago prestatu izango banintz, baina ez dut astirik izan. Bidaiaaren antolaketan ibili ginen buru-belarri. Ez dut itxura hori ematen, baina, bideak ere ez du aparteko esfortzu fisikorik eskatzen. Egunean 25-30 kilometro egiten nituen. Ariketa mentala handiagoa da.



Nagore Jerusalemgo Lehiotz atea zeharkatzen. HITZA

Dena den, fisikoki une zailak bizi izan zenituen...

Bai. Oinak oso egoera txarrean nituen, eta aste pare batez asko sufritu nuen. Azkenean, Sarajevon nintzela oinez ibiltzeari utzi nion, eta Tel Avivera bitarte, autobusez, trenaz eta bizikletaz jarraitu nuen bidea. Handik aurrera berriz hasi nintzen ibiltzen helmugara iritsi arte.

Zer izan da bide osoan zehar gehien gustatu zaizuna?

Uneoro aurkitu dudana elkartasuna, dudarik gabe. Italian nintzela adibidez, ezagutzen ez nuen, baina sare sozialen bitartez egiten ari nintzenaren berri zuten askori

esker, ia egunero jan eta lo doan egiteko aukera izan nuen. Eta hori adibide bat besterik ez da.

Eta jaso dituzun kontakizunetatik, zein zanda gehien hunkitu zaituena?
75 urteko gizon asturiar batena. Adin horrekin gimnasia joaten hasi zen pisuak altxatzera. Gauza da, bere emaztea oso egoera txarrean zela ohean Alzheimerrek jota, eta hurra altxatzeko indarririk ez zuela. Bost urtez egunero joan zen, harik eta emaztea hil eta joateari utzi zion arte.

Berri zenuke horrelakorik?
Ez dakit. Orain proiektuaren helburuak lortzean pentsatzen dut. Hala ere, ez dut alde batera uzten.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

↓ Iragarki laburrak

LANA

Etxeko lanak. Etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Interesatuek deitu: 943 69 6882 edo 06 52 19 92 telefono zenbakietara.



Arkaitz Apeztegia Txiribituko sortzaileetako, Goretti Galarraga eta Jon Romero begiraleak eta Haizea Urrestarazu eta Idoia Odriozola laguntzaileak. ir.

Ibarrako Txiribitu aisialdi taldeak 20 urte bete ditu, eta urteurrena ospatzeko Txiribitu Astea antolatu du datorren asterako; hilaren 13ko Txiribitu Eguna izango da ospakizuneko puntu gorena.

20 urtez aisialdian hezitzen

Iñigo Terradillos Ibarra

Hamaika bizipen, istorio, abentura, irribarre, argazki... Txiribitu aisialdi taldeak igaro diren ehunka gaztetxok euren barnean gorderik izango dituzte. Izan ere, 20 urte askorako ematen dute, eta adin horretara iritsi denez, behar bezala ospatu nahi du Ibarrako taldeak, herriari zuzendutako Txiribitu Astea eta Txiribitu Eguna eginez.

Goretti Galarraga eta Jon Romero begiraleek azaldu bezala, «txikienei nahiz helduenei zuzenduriko ekintzak» izango dira hilaren 8tik 13ra. Batetik, herriari ikusarazi nahi diete 20 urte bete dituela taldeak, eta herritar guztiak eurekin batera ospatzera gonbidatu dituzte. Bestetik, Txiribituk «herriari izan duen pisua» ere nabarmendu nahi dute: «Herriari laguntzeko prest egon da beti, eta horren adierazle da, herriko jardueretan beti present izan dela», diote begiraleek.

Hitzaldiak, jolasak, tailerrak edota emanaldiak izango dira datorren astean, astelehenetik ostiralera, eta larunbatean, Txiribitu Egunean egun osoko egitaraua prestatu dute. «Bazkaria da guztien artean nabarmendu nahi duguna, herrikoen artean giro politu sortzea nahi baitugun». Horregatik, herritar oro gonbidatu dute bertan parte hartzera.

Txiribituen 20. urteurrenaren berri emateko aldizkaria ere egin dute aisialdi taldeko begiraleek eta gaztetxok. Bertan taldeari buruzko pasadizo ugari irakur eta ikus daitezke. «Argazkietan Txiribitutik igarotako haurrak azaltzen dira, eta horien bitartez, 20 urte horien zati direla erakutsi nahi izan dugu», azaldu dute. Uzturpe ikastolan eta Ibarrako dendetan jarriko dute eskuragarri.

Begirale izateko pausoa

Aisialdi taldean jolastu eta heziten egotetik, begirale izatera pasa ziren Galarraga eta Romero. Gaztetxo asko eta begirale gutxi zeu-

den garaian, begirale laguntzaile izatea proposatu zieten, eta «gustura» onartu zuten. «Ekintzetan lagunduz hasi ginen, eta pixkanaka eskarmentua hartuz joan gara, begirale izatera iritsi arte», diote. Esperientzia «polita eta aberasgarria» izan dela nabarmendu dute. Batetik, begiraleen artean dagoen harreman «ona» azpimarratu dute; une asko igarotzen ditugu elkarrekin, elkarbizitza handia egiten dugu, eta erlazio polita sortzen da». Bestetik, herriko gaztetxoekin duten harreman «oso berezia» dela diote, «herrikoak, zure gertukoak baitira».

Haizea Urrestarazu eta Idoia Odriozola ere begirale izateko bidean dira. Txiribituko haur izatek begirale laguntzaile izatera pasa dira berriki, eta «pozik» daude emandako pausoarekin. «Ardua batzuk hartu ditugu, eta gaztetxoekin beste tratatu bat dugu. Hasi besterik ez gara egin, baina begirale izatera iristeko gozoz gaude». Denbora eta lana es-

kaintzen die begirale izateari, baina jaso ere jasotzen dutela diote laurak: «Pertsona moduan aberastu egiten zaitu».

Lagunarteko giroaz gozatu

Asko dira urtean zehar Txiribituk gaztetxoekin burutzen dituen ekintzak: larunbatetan jolasak eta irteerak egin ohi dituzte, Tolosako Inauterietan konpartsaekin dantza egiten dute, kanpalekuak antolatzen dituzte... Begiraleek adierazi dutenaren arabera, jarduera gehienek «helburu pedagogikoa» izaten dute. «Adinaren arabera antolatu ohi ditugu, eta txikienekin jolas egitera gehiago mugatzen bagara, 12 urtetik gorakoekin jolas soiletatik haratago, gaur egun bizi dugun egoeraren inguruko gaiak jorratzen ahalegintzen gara ekintzen bitartez».

Ekitaldi eta jarduera horiek «umeek euren denbora librean ondo pasatzeko aukera izatea, lagunarteko giroaz gozatzeta eta herritarren artean harreman ona

sustatzea» dute helburu nagusi bezala.

Hastapenetako oroitzapenak

60 gaztetxo inguru daude egun Txiribitu aisialdi taldean, eta horien ardurapean, berriaz, 10 begirale. Duela 20 urte jarri zen mar txan taldea, Arkaitz Apeztegia, Cecilia Maiza, Aitziber Karrera eta Ana Alegreren eskutik. Apeztegiak gogoratzen duenez, Ibarrako parrokiako apaizak proposatu zion unibertsitate ikasketak amaitu zituenean Ibarran aisialdi talde bat sortzea: «Beste herrietako parrokiatan bazirela aisialdi taldeak, eta Ibarran hutsune hori gurela esan zidan; ni Tolosako aisialdi talde batean aritutakoa nintzen, eta ideia asko gustatu zitzaidan, beraz, beste hiru kideekin elkartu, eta aisialdi taldea prestatzeari ekin genion», azaldu du Apeztegiak.

Bada, urtebete igaro zuten aisialdi taldeen funtzionamenduez ikasten, taldearen helburuak finkatu zituzten, eta abian jarri zuten. «Pixkanaka gure eskaintza eta programazioa handituz eta aberastuz joan ginen, eta gu ere ikasiz joan ginen, begirale moduan formazioa jasoz, Hezkide eskolan».

Larunbatero ekintzak eginez hasi ziren: «Plazan aritzen ginen jolasean, lehengo egitekin plazararen ondoan baikenuen, oso giro polita izaten zen», dio Apeztegiak. Bigarren urterako udale-



Herritar guztiakin batera ospatu nahi dugu urteurrena, eta denak gonbidatuta daude»

GORETTI GALARRAGA
Begiralea

«Pixkanaka handituz eta indarra hartuz joan da, eta oso pozik nago gaur egungo egoerarekin»

ARKAITZ APEZTEGIA
Begirale ohi

kuak antolatzen hasi ziren, eta Inauterietarako dantza prestatzen ere jarri ziren. Haurrentzako kanpalekuak antolatzeaz gain, begiraleen artean ere egiten zituzten egonaldiak, «formatu eta taldeko helburuak eta egitarauak prestatzeko helburuz».

Gaztetxo eta begirale berriak sartzen ziren heinean taldea indartuz joan zen. «Taldearen jarririkortasuna ziurtatzeko begiraleen erreleboa zen gure helburuetako bat, eta horregatik begiraleak pixkanaka sartzen saiatu ginen». Apeztegia begirale moduan egon zen hainbat urtez, eta gerora ere, luzaroan jarraitu du taldeari loturik, «era batera edo bestera lagunduz». «Oso pozik» dago duela 21 urte hasitako proiektuak egun duen egoerarekin, eta urte askoan horrela jarraitzea espero duela esan du.

↓ Egitaraua

APIRILAK 8, ASTELEHENA

■ **17:30.** Altxorraren bila Ibarra-ko plazan, gaztetxoen zentz.

APIRILAK 9, ASTEARTEA

■ **19:00.** Maider Sierra psikologo eta gizarte hezitzailearen eskutik hitzaldia, gurasoentzako.

APIRILAK 10, ASTEAZKENA

■ **17:30.** Graffiti Oihana Pelaezen eskutik, Ibarrako plazan.

APIRILAK 11, OSTEGUNA

■ **17:30.** Tailerrak gaztetxoentzat, Txiribitu aisialdi taldearen egoitzan.

APIRILAK 12, OSTIRALA

■ **18:00.** Jon Magic magoa, Ibarrako kultur etxean.

APIRILAK 13, LARUNBATA

■ **08:00.** Diana.
■ **09:30.** Mendi irteera. Hasiera eta bukaera, Ibarrako plazan.

■ **13:15.** Triki poteoa.

■ **14:30.** Bazkaria Ibarrako plazan (eguraldi txarra eginez gero, kiroldegian). Bazkarirako txartelak salgai daude Zubiaurre, Txumitza, Alai eta Danon Txokoak tabernetan, 12 euroan umeentzat eta 16 helduentzat.

■ **19:00.** Dinbi Danba perkusio taldearen emanaldia.

Aste Santuko egitarauan karakolak izan dira protagonista Tolosan, eta Aberri Eguneko ospakizun eta aldarriek ere izan dute tarterik Tolosaldeko hainbat herritan.

Barraskilo lasterrenen asteburua



Tolosa ◊ Karakol lasterketa hirugarrenez ospatu dute Tolosan, eta arreakastatsua izan da surten ere. Altzoko Norak irabazi zuen lehen saria, eta Aimar tolosarraren barraskiloa bigarren sailkatu zen. (I. ZEVALAKU)

Hirua Urkizu

Hirugarren urtez, karakol eskainitako Aste Santua izan da Tolosan: karakolen lasterketak bildu du ikusle gehien, Trianguloko plazako karpian.

Karakolok saltsu egitasmoaren barruan, gastronomiari begirako jarduerak antolatuta dituzte surten ere. Hurrein, pasa den larunbatan, Astelena eta Botari jateetako arduradunak aritu ziren, karakol mokaduak banatzeko, eguerdi aldera eguraldia kaskartu zen arren, bertakoek nahiz bistariek gozatu zuten larunbatuz.

Astelena jateetako Peio Doy-harrahalek karakolen saltsa prestatzeko sekretuak azaldu zituzten Trianguloko bertan: "Tontutis" saltsa arruntarekin prestatu behar da errezetan. Hala ere, garrantzitsuenak, karakolak jaso eta bi hilabete lehortzen jarrita da, gero, prestatu baino egun batzuk lehenago, gaztarekin eduki behar dira, mukia soka deutenen."

Larunbat goizeko mokaduroarekin batera, ordea, Tolosako hirugarren karakol lasterketak arreakasta izan zuen. Hainbat haurrek eta gazteek etxetik eramane zituzten barraskiloak, eta entrenamenduetan aritu zenik ere izan zen, beste parte hartzaile batzuek, aliz, nahiago izan zuten karakolak gose-tuta eramane, lasterketa hastalduen lekuaren atetik sakarrago joan zirenen.

Hiru txanda burutu zituzten hasieran, eta hanga sailkatuekin

final erdiak burutu zituzten. Azkenik, hiru karakol azkarrenek jokatu zuten finala: *Txetxi, Karolina* eta *Txungi* barraskiloak izan ziren. Hurrein, Altzoko Norak irabazi zuen Txindokiko Itzala parkean erabiltzeko 50 euroko txartela, *Karrolo* karakolarekin lehiketa irabazi eta gero; bigarren postuan, berriz, Aimar tolosarra sailkatu zen. *Txungi* barraskilok, ordea, eta Tolosa eta Civillarketako dendetan erabiltzeko 50 euroko txartela eskuratu zuen.

Ospakizunak aldarri
 Operaldietan batera, Aberri Eguna ere izan zen pasa den igandean. Tolosaldean, besteak beste, Otxolan eta Bidegoian burutu zituzten Aberri Eguneko ekitaldiak.

Otxolan Uliarrerra txangoa egin zuten 22 lagunek, eta Ikurri na jarri zuten tonforrean. Ondoren, elkarretaratzea egin zuten hainbat herritarrek. *Nisioa gara gozatu* ikurrak, *inposaketarik ez* heloa zaraman penkarterekin; hamalaketarekin birribildu zuten eguna.

Bidegoianen, berriz, dantzariak girotu zuten Aberri Eguna, Aurrekoa. Ikurri dantza eta Dusko Gudariak dantztatu.

Azkenik, alpatzeko da, Aste Santuko oporraldia, langileen protesta eta aldarrikapenarik plaza ere izan dela. Modu honetara, pasa den asteazkenean SAM-ko langileen elkarretaratzea izan zen Trianguloko plazan; zuzendaritzak ezagutarazi dituen kaleratzaren aurka irten ziren kalera.



Tolosa ◊ Baitarien nahiz bertakoek arreta piztu zuen karakol lasterketak, eta jende askok etxetik eramane zituen barraskiloak, lehiera. Lasterketa amaitu eta gero, Astelena eta Botari jateetako arduradunak karakolak banatu zituzten bertaratuz. (I. ZEVALAKU)



Otxola ◊ Uliarrera txangoa eginez hasi zuten Aberri Eguna Otxolan, eta ondoren elkarretaratzea egin zuten plazan. Hamalaketarekin birribildu zuten goiza. (I. ZEVALAKU)



Bidegoian ◊ Aberri Egunean dantzariak izan ziren, besteak beste, Bidegoiangi plazan. (I. ZEVALAKU)



Tolosa ◊ SAM enpresako langileek enpresa zuzendaritzak ezagutarazi berri dituen bust kaleratzaren aurkako elkarretaratzea egin zuten, pasa den asteazkenean. (I. ZEVALAKU)

Surf ikastaroa
 prezio edin hobean
 Zarautzen
 45€
 www.mauka.eu

Sartu gure webguneretan
 tolosaldea.hitza.info

hitza info

Jarraitu albisteak
 Twitter bidez
 @hitzatolosaldea

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza orrialdeari eman "atsegin dut"

Kirolak**↓ Kirol emaitzak****PILOTA****LEHEN MAILAKO
BINAKAKO PILOTA
TXAPELKETA****Finalerdietako ligaxka**

Irujo-Zabaleta	22
Olaizola II-Zabala	8
Bengoetxea VI-Beroiz	22
Berasaluze-Albisu	17

Sailkapena

1. Irujo-Zabaleta	1	1
2. Bengoetxea VI-Beroiz	1	1
3. Berasaluze-Albisu	1	0
4. Olaizola II-Zabala	1	0

Hurrengo partidak

Irujo-Zabaleta	
Bengoetxea VI-Beroiz	
Olaizola II-Zabala	
Berasaluze-Albisu	

**BOST T'ERDIKO BINAKAKO
PILOTA TXAPELKETA****Finalerdiak**

Jaunarena-Zubieta	22
Idoate-Laskurain	19

Finala

Xala-Peñagarikano	14
Jaunarena-Zubieta	22

SOKATIRA**GOMA GAINEKO 8X8KO
EUSKAL HERRIKO SOKATIRA
TXAPELKETA,
MISTOAK 600 kilogramo**

Finala	
1. Ibarra A	7 puntu
2. Murueta	6 puntu
3. Berriozar	5 puntu
4. Ibarra C	4 puntu
5. Sokarri-Bizindar	3 puntu
6. Basaburua-Imotz	2 puntu
7. Ibarra B	puntu bat

AIZKORA**2013 EUSKO LABEL
BANAKAKO AIZKORA
TXAPELKETA,
URREZKO MAILA****Aurrekanporaketako parte
hartzaileak**

Done Intxausti
Xabier Garcia 'Utxu'
Aritz Oregi
Beñat Lekue
Julen Larrea III
Jokin Alkizaletxe
Aitor Ureteaga
Eneko Otaño
Elói Kortxero
David Naredo

**Hurrengo jardunaldirako
sailkatuak**

Jokin Alkizaletxe
Aitor Ureteaga

TXIRRINDULARITZA**ESPAINIAKO BIKE TRIAL
TXAPELKETA.****I. JARDUNALDIA****Zalamea La Real-eko proba
(Huelva, Espainia)**

1. Lua Vizcaino
2. Carla Caballe
3. Irene Caminos
4. Elena Morales
5. Alba Hidalgo

Txapel berria buruan duela ari da banakakoa prestatzen Jaunarena

Bost t'erdiko txapelketa irabazi dute Jaunarenak eta Zubietak, finalean Xala-Peñagarikano gainditu ondoren

Asier Imaz Tolosa

Aspe pilota enpresako hainbat pilotarik txapelketa benetan berezia jokatu dute asteburuan, Zarrutzen: Binakako Bost t'erdiko Txapelketa. Dena izan da berezia: kantxaren neurria, sistema, parte hartzea, atsedeen denbora... Horrenbeste bitxikeriren artean, gauza bakarra gelditu da argi, eta hori, Jon Jaunarenaren maila izan da.

Leitzarrek Aitor Zubietarekin osatu du bikotea, eta finalean Xala-Peñagarikano irabazi zioten, 22-14ko emaitzarekin.

Bost t'erdiko txapelketa ostiraletan hasi ziren jokatzeko. Finalerdi bakarra jokatu zen, Xala eta Peñagarikano zuzenean sailkatu baitzituzten finalerako, enpresa arduradunek. Jaunarena-Zubietak aurkari Idoate-Laskurain izan zituzten, finalerdietan. Partida ikusgarri baten ostean, txapel-dunek egin zuten aurrera, 22-19ko emaitzarekin. Egundak bakarreko atsedeneren ostean, berriro itzuli ziren pilotariak kaiolara.

Finala parekatua izan zen, partidaren lehen zatia dagokionez. Jaunarenaren jaialdia, ordea, orduan hasi zen. Markagailuak 13nako berdinketa markatzen zuten, hau da, 22rako bikote bakoitzari bederatzi tanto gelditzen zitzaizkion. Bederatzi horietatik



Jon Jaunarenak aurten lehen mailan jokatu du buruz burukoa. HITZA

zortzi, leitzar gazteak egin zituen: bost gantxo, bi dejada eta txapa gainean moztutako pilota bat. Ikusgarria.

Buruz burukoa hasteko gogoz Zarrutzen erakutsi duen jokoarekin oso gustura gelditu da Jon Jaunarena: «Noizean behin jokatzeko ditugu horrelako txapelketak, eta bi partidetan gustura ibili naiz. Aitorrek asko lagundu dit, konfiantza handia ematen baitu, eta bera ere oso ongi ibili da».

Bost t'erdikora ordezko bezala

iritsi zen leitzar, Ezkurdiaren lekuan: «Eskuetatik justu zebilen bera, eta nik asteburuan partida bakarra nuen, buruz buruko bat. Hemen sartu ninduten, eta oso ongi atera da niretzat».

Partidak aztertze garrantzirik, biak gogorrek izan zirela dio Jaunarenak: «Bost t'erdian eritimoa altuagoa da, eta partida biziak atera dira. Finalerdietakoa oso gogorra izan zen, eta finala ere berdina, bai behintzat 13na arte. Hortik aurrerakoa erazagoa izan zen. Denok dakigu Xalaren

maila nolako den, eta bere eguna baldin badauka zenbat jokatzeko duen. Finalean ez zen bere egunik onena izan, eta gu hori aprobeztatzen saiatu ginen».

Binakako txapelketa finalerdietako ligaxkan aurkitzen da une honetan. Hau bukatzen denean, buruz burukoa hasiko da, eta bertan egongo da Jon Jaunarena. Iaz, bigarren mailako txapela irabazi zuen, eta horrekin batera, aurten maila nagusian jokatzeko txartela. Leitzarren esanetan, entrenamendu pare bat eginak ditu jada, Idoate eta Haritz Lasarekin, baina buruz burukoa prestatzeko, lanean jarraitu behar dela uste du: «Frontoi osoan jokatzeko entrenamendu bereziagoak egin behar izaten dira, eta bi egunak baldin badituzte ere, gehiago egin beharrean nago».

Txapelketara nola joango den galdetuta, presioa norberak bere buruari jartzen diona izaten dela dio leitzar gazteak: «Ahalik eta partida gehien irabazten saiatuko naiz, baina pare bat garaipen lortuz gero, egindako txapelketa-ekin gustura geldituko naiz. Ean polita egiten dudana buruz burukoan».

Une hori, egun martxan den txapelketa amaitu ondoren iritsiko da. Binakakoan beste leitzar bat dago, finalera sailkatzeak aukerakin, eta Jon Jaunarenak ez du hori ahazten: «Oinatz Bengoetxea eta Mikel Beroizek oso bikote gogorra osatzen dute. Lehen jardunaldia eta txapelketa osoa ikusita, finalean egoteko faborito nagusiak Irujo-Zabaleta direla uste dut, eta bigarrenak Bengoetxea-Beroiz».

Ibarrako sokatira taldeak bost txapelekin amaitu du denboraldia

Denboraldi amaieran jokatu diren txapel guztiak irabazi dituzte ibartarrek, azkena, duela bi aste lortu zuten

A. Imaz Ibarra

Goma gaineko sokatira denboraldia txapel berri batekin amaitu zuten Ibarrak; azken bost txapelketetan, bost garaipen lortu dituzte, beraz.

Duela bi aste, martxoaren 23an, mistoen 600 kiloko lehiaketa jokatu zuten Arrigorriagan. Guztira zaz-

↓ Txapeldunak

■ **Abadiño:** 680 eta 640 kilogramo.
■ **Ibarra:** 600, 560, 540, 500 eta 600 mistoan.

pi taldek hartu zuten parte, eta horietatik hiru, Ibarrakoak ziren. Ibarra A talde txapeldunak saio-dok txanda guztiak eta tiraldi guztiak irabazi zituen. Tiraldirik gogorrena Muruetaren aurkakoa izan zen, baina hori ere irabaztea lortu zuten. Ibarra C taldekoak laugarren sailkatu ziren, eta Ibarra B-koak, zazpigarren.

Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia Bidegoiandik pasako da

Munduko txirrindulari onenak eskualdeko errepideetan ibiliko dira ostiraletan, 14:00ak inguruan

A. Imaz Bidegoian

Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia ostiraletan iritsiko da eskualdeko errepideetara, hain zuzen ere, Bidegoianera. Txirrindulariak Azpeitiatik Urrakira joango dira, eta lehen mailako mendatea gainditu ondoren, Bidegoianera iritsiko dira. Ondo-

ren, Goiazatik barrena, Bidaniara joango dira, eta hortik, Goierri aldera. Azken aurreko etapa hau Beasainen amaituko da. Aurreikuspen azkarrenaren arabera, Bidegoianera 13:54ean iritsiko dira txirrindulariak, bosgarren etaparen barruan. Eskualdeko errepideetan hamar kilometro eskas egin ondoren, Goierriantza abiatuko dira.

Ostiraletako etapak 165,5 kilometro izango ditu, eta itzuliko azken aurreko izango da. Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia larunbatean amaituko da, Beasainen hasi eta amaituko den erlojuaren aurkakako probarekin.

Espainiako Biketrial Txapelketaren lehen proban podiumera igo da Caminos

Biketrial txapelketa sei probek osatzen dute, eta tolosar gazteak guztietan parte hartzeko asmoa dauka

Asier Imaz Tolosa

Irene Caminos tolosarrak hirugarren postua lortu du Espainiako Biketrial Txapelketaren lehen jardunaldian. Huelvan (Espainia) jokatu da lehen saio hori, eta guztira sei proba direnez, aurretik beste bost geratzen zaizkio tolosarrari.

Espainiako txapelketako proba igandean jokatu zen. Aurrez, larunbatean, gorputza berotzeko beste proba batean parte hartu zuen Caminosek, eta hor ere podiumera igo zen tolosarra, bigarren amaitu ondoren.

Espainiako Biketrial Txapelketan Caminosek parte hartzen duen bigarren aldia da aurtengoa. Laz bera baino hobeto ibili ziren txirindularien aurretik geratu da tolosarra, urte batean asko hobetu duen seinale. Konfiantza handiarekin aritu da lehian Caminos, eta proba ikusten zeuden hainbat entrenatzaile harrituta geratu dira urte honetan tolosarrak egin dituen aurrerapenekin. Caminosek parte hartu duen txapelketa honetan, adin mugarik ez dagoela aipatu behar da, eta tolosarra 1998an jaioa dela. Horri, Huelvako Biketrialen pista egocera oso onean ez zegoela gehitu behar zaio. Zaparrada handiak bota zituen, eta oztopoak labainkorak zeuden.

Hurrengo jardunaldia Tarragonan (Herrialde Katalanak) izango da, hilaren 27an eta 28an. Txapelketako sei probetan parte hartzeko asmoa dauka txirindulari tolosarrak.



Irene Caminos tolosarra Zalamea La Real-eko proban. HITZA

Jokin Alkizaletek aurrera egin du urrezko mailan

Asteburuan bi kanporaketa berri jokatu dira, Zerainen eta Bilboko Santutxu auzoan

A. Imaz Asteasu

2013 Eusko Label Banakako Aizkora Txapelketaren aurre kanporaketa jardunaldia jokatu zen iragan larunbatean Bilbon. Asteasu-ko Jokin Alkizalete gaztea bertan egon zen, urrezko mailan. Guztira, Areatzan, hamar aizkolari aritu ziren lehian, eta hauetatik bik bakarrik zuten aurrera jarraitzeko txartela eskuratzeko aukera. Hiru txanda gainditu ondoren, Alkizalete II.ak urrezko aizkolari lehian jarraitzeko postua irabazi zuen, Aitor Urteagarekin batera.

Hamar aizkolariak hiru taldeetan banatu zituzten, eta elkarren artean kanporaketak jokatzeko ibili ziren. Jokin Alkizaleteri A taldean jokatzeko tokatu zitzaion, Eneko Otañorekin eta Julen Larrearekin batera. Hiru hauetatik bigarren fasera bi pasatu ziren. Lehen lehia galdu egin zuen Alkizalete II.ak, Eneko Otañoren aurka. Azken honek 22 segundoko alde atera zion asteasuarrari. Otañok Larrea III.a ere gainditu zuenez, bi galtzaileen arteko lehian erabaki zen aurrera nor jarraitu. Kasu honetan, Alkizalete II.a izan zen nagusi, Julen Larreari 11 segundo atereaz.

Bigarren fasean, zortzi aizkolari aritu ziren lehian. Kanporaketa zuzenak izan ziren, hau da, nor baino nor aritu ziren, eta irabazleak aurrera egin zuen. Jokin Alkizaleteri Xabier Garcieren aurka lehiaz tokatu zitzaion. Asteasuarrak lan guztiak amaitzeko 3 minutu eta 12 segundo behar izan

zitu. Aurkariak, *Utxu-k*, 4 minutu eta zazpi segundotan amaitu zuen egin beharreko lana. Denborak alboan jarrita, asteasuarrak lortu zuen azken faserako txartela.

Hirugarren eta lehia erabakigarrian, ezagun zahar bat topatu zuen Alkizalete II.ak: Eneko Otaño. Bi aizkolarien artean lehia gogorra aurreikus zitekeen, lehen proban Otaño izan baitzen nagusi. Lana, ordea, luzeagoa zen eta asteasuarrak ederki probestu zuen aukera hori. Jokin Alkizalete 4 minutu eta 28 segundotan gelditu zuen erlojua, eta Otañok 5 minutu eta 16 segundotan. Garaipe horri esker, aurrera jarraitzeko txartela eskuratu zuen asteasuarrak.

Hurrengo kanporaketak

Banakako urrezko aizkolarien hurrengo jardunaldiak asteburuan jokatu dira, eta eskualdeko ordezkarri ugari egongo dira lehia hauetan. Larunbatean, hilaren 6an, Zerainen antolatuta dute aizkora jaialdia, 19:00etan. Kanporaketa honetan ondorengo aizkolariak arituko dira lehian: Irazu, Beltza, Dorronsoro, Esnaola, Goñi, Kañamares, Agirre, Urteaga, Pellejero, Sakana, Jauregi eta Zaldua. Proba hau ETBk eskainiko du.

Hurrengo egunean, hilaren 7an, txapelketako beste kanporaketa jokatu da Bilbon. Jokin Alkizalete bertan egongo da, eta ondorioz, asteasuarrak berriro Bizkaiko hiriburura bidaiatu beharko du. Lehia Santutxun izango da, 12:00etatik aurrera. Alkizalete II.aren batera ondorengo hamaika aizkolariak egongo dira bertan: Irababal, Eneko Saralegi, I. Vicente, Resano, D. Vicente, Mugertza III.a, Telletxea, Kintana, Llano, Juan Rodriguez eta Jon Rodriguez.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



GOIZA	LANOTUTA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	13°
HOTZENA	7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Ibarra



KATUA ETA ARRATOIA, ETXEAN GOXO

Aste Santuko oporrak luzeak izan ohi dituzte etxeko txikienek, eta Ibarra Udalak aste honetarako hainbat ekitaldi antolatuta ditu beraiei zuzenduta. Atzo, Rosa Maria Martinezen txanda izan zen, eta *Etxean goxo* emanaldia eskaini zuen. Haur eta guraso ugari gerturatu zen, eta txo-

txongiloez gozatzeko aukera izan zuten, kultur etxean. Gaur, ordea, *Bertsolharitza* ipuin kontaketa izango dute Ibai Esoain eta Lankuren eskutik, eta bihar, Kiki, Koko eta Moko pailazoan *Natura gara* emanaldia izango da. 17:00etatik aurrera Ibarra kultur etxean izango dira. E. MAIZ

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Ibarra.** «Bertsolharitza» umeentzako emanaldia izango da, 17:00etan, Benito Izagirre kultur etxean. 5 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzendua.

■ **Tolosa.** Tolosako Foro Errepublikarrak herri bazkaria antolatuta du hilaren 14rako. Bazkaria Zerkasian izango da, 14:15ean. Interesatuak izena eman dezakete 22 euro Kutxako 2095 5081 93 1074768150 kontu korrante zerbakiari sartuta. Izena eta abizena zehaztu beharko dira.

■ **Tolosa.** Tolosako Udalak, sangoan iragarriko dituen kartela egiteko lehiaketa antolatuta du. Maiatzaren 17a da lanak aurkezteko azken eguna. Kartelean, *Sanjoanak 2013 / Tolosa, ekainak 21-25* agertu beharko da. Lanak kultur etxean aurkeztu beharko dira.

■ **Tolosa.** Kilometroak 2013ko Ikasle Batzordeak Ahorra! bideo lehiaketa antolatuta du. Gehienez bost minutuko edozein bideo egin daiteke. Ahorra! leloa gai gisa hartuta. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 10a da.

■ **Tolosa.** Horniketaren sarea hobekuntzak egiteko, zenbait kaletan ura moztuko dute, gaur, 15:00etatik 18:00etara. Nafarroa Etorbideko 3tik 17ra eta 16tik 18ra etxeetan, Samaniego kaleko 2. zerbakiari, eta Foru Etorbideko 6. eta 8. zerbakietan moztuko dute ura.

IKASTAROAK

■ **Aduna.** Umeentzako zirko ikastaroa izango da gaur eta bihar, Adunako Asvinenean. Telak, trapezioa, jolasak eta akrobazia landuko dituzte. Virginia

Maffassanti irakaslearekin ariko dira 11:00etatik 12:45era. Informazio gehiagorako, 689 79 24 69 telefonora dei daiteke.

■ **Tolosa.** Hastapeneko klown ikastaro trinkoa izango da hilaren 6 eta 7an, Amartzuz auzo elkartearen 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara izango da. 70 euro ordaindu beharko da, eta izena *intujai@intujai.net* helbide elektronikora idatziz edo 647 201 401 telefono zenbakira deituz eman daiteke.

■ **Tolosa.** Txotxongilo tailerra, belaunaldien arteko harremanak lantzeko. 09:30etik 12:30era, Topic zentroan izango da. 5-7 urteko haurrentzat eta euren guraso edo zaintzaileen-tzat.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Topic Zentroan Txotxongilo taldearen erakusketa dago. Enkarni Genua eta Manolo Gomezen erakusketa da, eta 80 txotxongilok osatzen dute.

■ **Tolosa.** Lanbroa tabernan, Xegunda Iztuetaren buztinezko arte lanak daude.

■ **Alegia.** Erretirodunen tabernan, Jaoni Alkortaren margolanak daude.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria kalea 3. Telefonoa: 943 67 09 15.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info